

ERREPORTAJEA

“Nafarroako Mendialdea”
Landa Garapeneko Programa:
lurraldearen onerako tresna

SUSTATZAILEAK

Quesos Larra:
Burgitik mundura

ERREPORTAJEA

“Zaldi turismoa” eta “ Bileren turismoa”:
Nafarroako Turismoari buruzko
Nazioarteko II. Kongresuan aurkeztutako
etorkizun handiko bi proposamen

marketing 2.0
eta kudeaketa

prestakuntza



ERREPORTAJEA
"Nafarroako Mendialdea"
Landa Garapenerako Programa:
lurraldearen onerako tresna

4. or



SUSTATZAILEAK
Quesos Larra:
Burgitik mundura
8. or



IRITZIA
Turismo-politika
29. or



GIZARTEA
"Zaldi turismoa" eta " Bileren turismoa":
Nafarroako Turismoari buruzko
Nazioarteko II. Kongresuan aurkeztutako
etorkizun handiko bi proposamen

25. or

ERDIALDEA

Prestakuntza, nafarroako mendialdeko eteei
eta turismo sektoreko enpresei zuzenduta

32. or

BERRIAK

14. or - 24. or

- » Cederna Garalur Elkartearen informazio-buletin digitalak jaio dira
- » Oropesako adierazpena sinatu dute, Natura behatzearen inguruko turismo-produktuari buruzkoa
- » Esnearen interpretazio-zentroa ireki dute Arakilen
- » Agoizko uztartze-ituna sinatu dute
- » Nafarroako Mendialdeko enpresen kudeaketa eta marketina hobetzearen alde
- » 2010ean 50 enpresa plan jarri dira abian
- » 8 enpresa beren marketin 'on line' planak diseinatzen hasi dira
- » Cederna Garalur Elkartearen Europe Directek 'Europar herritartasuna' programari buruzko CDa eman du argitara
- » Lehen eskuko europar informazioa: Europako programen aurkezpeneko sarbidea
- » Bisita "Nafarroako Mendialdea" Turismoa Dinamizatzeko Planeko hiru proiektutara
- » "Europa erromanikoa" eta "natura behatzeko turismoa" FITUR 2011n izan dira

Lege-gordailua: NA-2153/2003

2 007an hasi genuen legealdi hau bukatzean, egokia deritzot gogora ekartzea presidentetzatik eta Zuzendaritza Batzordeko nire kideekin legealdiaren hasieran Cederna Garalur Elkartearentzat proposatu genituen ildo nagusi eta enpresa helburu batzuk.

- Ekonomia finkatzea, baliabideen kontrolean oinarrituta eta baliabide horiek optimizatuz.
- Garapenerako, laguntza emateko eta Cederna Garalur Elkartek lantzen dituen arloetan jarduerara ildoak abian paratzeko gaitasuna izango zuen lantaldea eratzea eta egituratzea.
- Finantziazio bide berriak lortzea, funtsak lortzeko ate berriak zabaltzea.
- Gure helburuak eragimen handiagoz lortzea ahalbidetuko zigun erakundea diseinatzea.

Gure barne errealitatearen hainbat alderdi agerian uzten dituzten erreferentzia puntu horien analisi azalekoa eginda, esan dezaket oro har betetze maila ona izan dela, nahiz eta, edozein estrategiatan bezala, zenbait alderdi findu behar izaten diren, erdietsi asmo dugu maila optimora helduko bagara.

Zorionez, ezarri genituen neurri horiek, aldi baterako behintzat, babes blindajea dira guztiok pairatzen ari garen egungo krisi egoerak ekarriko zukeen higadurarekiko. Hala ere, kezkatu egiten nau,



aunitz kezkatu ere, gure zerumugan antzeman daitkeen zalantzaz beteriko etorkizunak, pairatzen ari garen ahulezia ekonomikoari erreparatuz gero.

Aldizkari hau kaleratzearekin batera amaituko da legealdi hau. Hurrengo zenbakia kaleratzen dugunean, batzorde honetako udal ordezkarien osaera prestatzen ariko gara. Horrenbestez, 'Berriak' aldizkarirako eginen dudan azken editoriala izan daitke. Hala balitz... agurtu beharrean nago...

Hortaz, eskerrak eman nahi dizkiet Zuzendaritza Batzordeko kide guztiei eman didaten sostengua eta laguntza. Halaber, nire esker on berezia zuzendari gerenteari, beti erakutsi izan dituen konpromisoagatik eta inplikazioagatik

Luis Gárate Jiménez
Cederna Garalur elkartearen presidentea

Telefonoa: 948 207 063 • Posta elektrónikoa: info@cederna.es • www.cederna.es

“Nafarroako Mendialdea” Landa Garapeneko Programa: Iurraldearen onerako tresna

Turismoa, ondarea eta kultura, ETEak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, inguru-mena, nekazaritza eta abeltzaintza... Nafarroako Mendialdeko sektore eta arlo horiek ‘Nafarroako Mendialdea’ Landa Garapeneko Programaren onurak jasotzen ari dira. Programa Cederna Garalur Elkartek kudeatzen du, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LGENF) eta Nafarroako Gobernuaren finantziazioa du, baita tokian tokikoa eta proiektuen sustatzaileek berek egindako ekarpenak ere.



Nekazaritza eta abeltzaintza sektoreak hainbat proiekturen onura jaso du.

2 009. eta 2010. urteetan 145 proiektu onartu ziren ‘Nafarroako Mendialdea’ Landa Garapeneko Programaren barnean. Horietatik, 2010eko abenduaren 31n 68 proiektu bukatuak zeuden Cederna Garalur Elkartearen lan esparru osoan zehar.

Programak hiru estrategia ditu eta horietara biltzen da proposamen bakoitza. Programa burutzen denean, garapen bidea landua izanen da, herri askoren bizi kalitatearen eta turismo produktu interesgarriak eskaintzearen mesedetan. Bestek beste, enplegua ere sortuko da.

Estrategiak eta finantza zuzkidura

Hiru dira programan proposatzen diren tokiko garapen estrategiak:

- Lehiakortasuna
- Ingurumena eta landa ingurua
- Bizi kalitatea eta dibertsifikazioa

Hiru estrategia horiek lurraldearen garapen integrala eta jasagarria ekarriko dute, eta horretan mendialdeko eragile ekonomiko eta sozial guztiek jaso dezakete onura. Proiektuak Cederna Garalur Elkartearen ebatzorganoak onartu zituen.

Programaren finantza zuzkidura 9.017.375 euro izan zen; kopuru horretatik, 4.959.556 euro Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) dator, eta 4.057.819 euro Nafarroako Gobernutik. Finantza zuzkidura hori ekarpen publiko eta pribatuekin osatuko da. Gaur egun 4.209.775,36 euro daude konprometiturik; kopuru horretatik, 1.686.528,02 euro exekutatu dira 2010eko abenduaren 31ko datarekin. Horrenbestez, aise betetzen ari dira programan ezarrita zeuden itzaropenak.



Ciudad Realen antolatzen zen 'España Original' azokan Cederna Garalur Elkarteak paratu zuen standaren goitiko bista.

Lehiakortasuna

Programa hasi zenetik, 6 proiektu jaso dute babesa 'lehiakortasuna' izeneko neurrian: 2 sustatzaile pribatuenak, 1 toki-entitatearena, eta 3 elkarte edo fundazioena. Proiektuen eremu onuradunak Baztan, Sakana, Zangoza eta

Garapen ekonomikoa ekarriko duten proiektuei sostengua ematen lan egiten ari da



'FINMA, Musika Jaialdia', programak sostengatua eta Eugin burutua

Mendialde osoa dira, lurraldearen udal-erri ugari barne hartzen dituzten proiektuen bitartez.

Neurri horren barnean, tokian tokiko nekazaritzako elikagaiak balorizatzeko proiektuak landu dira, bai produktu horiek merkaturatzeari dagokionez, baita nekazaritzako turismo produktuak sortzeari dagokionez ere.

Ingurumena eta landa ingurua

Estrategia horren barnean, Landa Garapenerako Programak 7 proiekturi eman die sostengua; horietatik, 4 toki-entitateenak dira, 2 sustatzaile pribatu-erenak, eta 1 elkarte batena. Proiektuek

ibaiak, lurraldea, ingurumen garapena sustatzea, birziklatzea, hondakinak berreskuratzea eta natur baliabideen erabilera jasangarria lantzen dituzte.

Neurri horretan sartzen diren proiektuen onura jasoko duten udal-erriak Sakana, Bidasoa, Erroibar, Larraun, Ultzama eta Zaraitzun eta eskualdez gaudiko proiektu batean kokatzen dira.

Bizi kalitatea eta dibertsifikazioa

Hauxe da proiektu gehien jaso dituen estrategia, 55 proiektu denetara: 40 toki-entitateenak dira, 8 sustatzaile pribatu-erenak, eta 7 elkarte, fundazio nahiz en-

titate sektorialenak.

Neurri horren garapeneren barnean, zenbait ekimen, proiektu eta jarduerak landu diren hainbat arlo edo sektore azpimarratu behar dira. Zerrenda horren buru ditugu turismo, ondare eta kultura proiektuak.

Turismo sektoreari dagokionez (programa aktiboenetako bat), argi ageri da kalitateko turismo xedea eratzten joateko joera, tokian tokiko turismo produktuak sortzeko, hainbat ostatu (landetxeak, aterpeak, hotelak, jatetxeak, eta abar) eta turismo aktiboko enpresa hobetu eta abian paratzeko, bai entitate publikoek sustatuta, bai sustatzaile pribatuek, beren negozioetan hobekuntzak egin dituzten enpresek nahiz negozio berriak abian paratu dituzten sustatzaileek bultzatuta.

Landa garapenerako programaren barnean finantziazioa lortu duten ETEak turismo sektorekoak nahiz ohikoagoak diren sektorekoak dira; besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintza sektorekoak. Energia berriztagarrien sektorean ere landu da ekimenen bat. Sustatzaile horiek guztiak mendialdeko ekonomi ehu- na hobetzen laguntzen dute, enplegua eta aberastasuna sortzen dute.

Ondareari eta kulturari dagokienez, hainbat jarduerak ildo azpimarratu behar ditugu: balioa duten ondare elementu arkitektonikoen gaineko jarduna, herrien kultur identitatean, beren usadioetan eta historian eragiten duten proiektuak, eta jarduerak esparruari kultur balio erantsia ematen dioten bestelako ekimenak; besteak beste, musika jaialdiak eta ingurunean txertatutako lehiaketa artistikoak antolatzea.

IKTBak ikus-entzunezko berariazko komunikazio proiektuen bitartez eta Internetera (sareen sarean) sartzeko beharrezkoak diren azpiegituren inplementazioaren bitartez ageri dira programa ho-

Herriak ekintzen onurak jasotzen ari dira.



Ledeako Gizarte eta Kultur Etxeko altzariak


Garapen bidea, herri askoren bizi kalitatea hobetzea, turismo produktu interesgarriak eskaintzea eta enplegua areagotzea, besteak beste, ekarriko dituen.

netan. Berebiziko garrantzi du horretan parte hartzeak, mundu globalizatuari leku bakoitzaren berezitasunak erakuste aldera. Konexio arazoak konponduta irudi badezake ere, ez da halakorik gertatzen zerbait landa eremutan. Hori dela eta, sustatzaileek, batez ere toki erakundeek, sostengu hori behar dute konktibitatea hobetzeko, eta lurraldeak bere komunikazioa hobetzen laguntzeko, hartara, bizi kalitatea hobetuz.


Hainbat udalerritako herritarrak beren bizimodua hobetzen duten jardueren onurak jasotzen ari dira, programatik gazteei, haurrei, emakumeei, herritarrei zuzendutako proiektuei ematen zaien laguntzaren bitartez, uztartze ekintzen bitartez, kultur guneak eta liburutegiak sortuz eta guneak egokituz, herritar guztiek izan dezaten herriari balioa ematen dieten ekimen berrietarako sarbidea eta horiek sortzeko aukera.

Nafarroako Mendialdea Europako eta erregioko ekimen horren onurak jasotzen ari da. Alde batetik, orri hauetan jasotako proiektu gauzatuengatik, eta bestetik gauzatzen hasi diren eta datozen hilabeteotan burutuko direnengatik ere. Azken helburua Landa Garapeneko Programan proposatutako ildo estrategikoen finkatzen dute: lehiakortasuna hobetzeko lan egitea, ingurumena eta landa ingurunea hobetzen eta zaintzen lan egitea, eta lurraldeko bizi kalitatea hobetzearen aldeko apustua, ekonomia, jardunak, ekintzak... dibertsifikatzearen aldeko apustua egitea.

Neurri bakoitzean gauzatutako ehunekoak



Ehunekoa onuradunen izaeraren arabera



'Ameztia' turismo aktiboko enpresaren instalazioak Donezteben.

Quesos Larra: Burgitik mundura

'Quesos Larra' enpresaren gerente Miguel Aznarez Lusek hartu gaitu, bere gaztandegiaren instalazio berriak inauguratu eta astebetera. Berritzearen helburua izan da negozioa hobetzea, balioa gehiago ematea eta merkatuan sari gehien jaso dituen Erronkariko gazta egiten jarraitzea.

¿C

ederna Garalur: nola eta noiz sortu zen 'Quesos Larra'?

Miguel Aznarez: 1955ean. Aurreko urtean ardi-esnea ekoizteko nabe bat eraiki genuen, baina berehala jabetu ginen gazta egin behar genuela. Garai hartan, ikasketak bukatzeaz nituen, eta herrian geratu asmo nuen bizitzen. Aukeraz jabetuta, gaztak egiten hasi ginen ardiak gordetzen genituen nabe berean. Bertan egon ginen 1990. urtera arte; orduan, familiaren etxearen etxabera eraman genuen ekoizpena, makineria berria eta esnea biltzeko kamioia erosi genituen, izan ere, hasiak baikinaren esnea kanpoan erosten.

“Ibarrean geratu ginen bizitzen, eta familia aitzina atera genuen” ¿zein da apustu horrez egiten duzun balantzea? Abantailak ugari dira. Nire lagunek asteburuetan gozatzeko aukeratzen duten lekuan bizitzea zoragarria da. Burgi haur txikiak dituzten familiak dituen herria da. 20-22 haur daude eskolan, eta horrek bizia ematen dio. Egokiena litzateke 10-12 familia gehiago egotea. Horrexegatik egin genuen enpresa-parkearen aldeko apustua. Enpresak etortzen badira, litekeena da jendea bertan geratzea bizitzen.



Miguel Aznarez Lus, 'Quesos Larra' gaztandegiaren gerentea, elkarrizketan



Enpresako ganberetako baten itxura

Queso Larra, enpresa sendotua

Berehala hasi zineten esnean erosten, gaur egun nori erosten diozue? 16 abeltzaini. Erronkari Ibarrean apenas dago esnerik. Garai batean,

Erronkari gazta rasa ardiaren esnearekin egiten zen. Gaur egun, ordea, halako arrazako artalderik ez dago apenas. 1975ean, Erronkari jatorri-deitura atera zen, eta horren barnean latxa ar-

Gustura lan eginen duten sektore batean sartzea.

dia sartu zen. Guk gazta latxa ardiaren esnearekin egiten dugu, Sakanako artzainei erosita.

Larra da Erronkari jatorri-deituraren barnean sari gehien jaso dituenetako bat?

Sarituena. Ia-ia urtero jaso dugu sari-
ren bat, 2009ra arte. 2010ean, ez dugu saririk jaso, izan ere buru-belarri jardun dugu proiektu berriarekin. Orain, 2011n, lehiaketetara aurkezteko denbora gehiago izatea espero dugu.

Zein ezaugarrik bereizten dute Quesos Larra beste gaztetatik?

Gazta eta gaztagile bakoitza desberdi-



Makinak garbitzeko lanetan



¿LEHEN PERTSONAN?

Miguel Aznarez Lus

Burgin sortu nintzen, **1965eko** maiatzaren 3an.

Artaxoan ikasi nuen, OHO. Irunberrin LH1, eta **salestarretan** LH2.

Ezkonduta nago, eta **bi seme** ditut.

Gaur egun **Burgin** bizi naiz.

Lanean ari ez naizenean, **mendira** joaten saiatzen naiz, **ibiltzera**. Izan ere, udala lanarekin batera baitoa.

Irakurri dudan azken liburua Felix Sanzen **“Tipos y Vidas del Roncal”** izan da.

Ez dut onartzen (barreak) alferkeria, anabasa.

Damu dut, beharbada, familiari denbora gehiago ez ematea.

Konpondu gabeko arazoa (barreak: **fisika** dela esaten badizut), akaso, zerbait gehiago ez ikasi izana.

Gosarian beti hartzen dut: tea eta fruta

Erlaxatzeko, ahal badut, **ibili** edo bestela **irakurri**, gitarra jotzea (barre artean: asken horrek asko erlaxatzen nau, nire semeei eta emazteari ez, baina niri bai).

na da. Guztiok antzeko esnea darabilgu, baina gaztagile bakoitzak gazta desberdina egiten du. Guk kalitate handiko esnearen aldeko apustua egin dugu, eta horretarako, artzainak oso ondo aukeratu ditugu.

Esnea da garrantzitsuena. Ziur egon behar duzu hornitzaileek beti esnerik onena emanen dizutela. Garrantzi handikoa da, eta horregatik ordaintzen dugu esnea prezio hobea goan, ardiak elikatzean silorik ez erabiltzea; hartara, fabrikatzerakoan arazoan izatea saihestuko dugu.

Hortik aitzin, gaztak egiteko modua betikoa da; nahiz eta makineria berria sartu, gaztak egiteko modua betikoa da: esnea, gatzagia, ... moldatu eta prentsatu...

Nola aukeratzen dituzue artzainak?

Ustiapenak Erronkari izendapenak agindutakoa bete behar du. Esnearen analisia egiten diegu. Teorian, edozein artzain izan daiteke; betiere, esnearen kalitate-baldintzak betetzen baditu. Latxa ardiaren esnea izanik, horrek soilik kalitate-baremo garrantzitsua ematen dio.

Zein marka merkaturatzen ditu Larrak?

Bost marka: Larra, El Pastos Roncales, Uderki, Puente del Esca eta Sabores de Navarra. Azken hori horren ondura ez dagoen gaztarako erabiltzen dugu (lau hilabete baino gutxiago); beraz ez du jatorrizko deiturarik. Horrela, merkatu gehiagotara heltzea, eta gatazkarik sortu gabe banatzaille gehiagorekin lan egitea lortzen dugu.

Non duzue eskaerarik handiena?

Batez ere Nafarroan, bertan saltzen baitugu ehuneko 50 baino gehiago. Ondoren Katalunia, Euskal Autonomia Erkidegoa eta, azkenik, esportatu egiten dugu. Gehienbat Estatu Batuetara saltzen dugu; esportatzen dugunaren ehu-

neko 70 inguru. Beste hainbat herrialdetara ere esportatzen dugu, Libanora, kasurako.

Nola antolatzen duzue gestio osoa?

Zortzi lagun gara lanean, 4 familiakoak. Nire emaztea gurekin hasiko da lanean, administrazio-kontuak eramaten; horrenbestez, bederatzi izanen gara.

Nire anaia, Eliodoro, arduratzen da esnea erosteaz, fabrikazioaz eta eskaerak kudeatzeaz. Ni administrazioaz, gerentziatz, salmentaz eta fabrikazioaz ere arduratzen naiz. Eta banaketa bion artean egiten dugu. Familia ETEa izanda, de-

Suedian hasiko gara saltzen, “España Original” azokan egindako kontaktu bati esker.





'Quesos Larra' enpresaren fabrika berria Erronkariko (Burgi) enpresa parkean

netatik egiten dugu, beti harmonian, oso giro ona dugu.

Nola irudikatzen duzue geroa?

Orain argiago ikusten dut... orain artekoak ez zuen etorkizun handirik. Orain lantzen ari garen enpresak gaurtik eta erretiroa hartu bitartean beharbada balioa izanen du, bai familiak ustiatzen jarraitzeko, bai saltzeko, bai... Arlo horretan pozik nago, ilusioz beterik gaudela.

Nahiz eta errespetu handiagoa sortzen digun aldaketa horrek duela 25 urtekoak baino. Beharbada, gazteagoak ginelako, eta hutsetik hasi ginelako... Orain, beldurra handiagoa da; inbertsioa askoz handiagoa da, eta kontuan hartuta aurrera jarraitzeko eta zertxobait hazteko behar genuen gutxienekoa izan dela.

Gaztandegiaz gain, 'Urandi' landetxea ere baduzue. Nola sortu zitzaizuen tu-

rismo sektorean sartzeko ideia?

Duela hiru urte hasi ginen. Baserrituzismoa da. Negozio osagarriak dira. Gaztandegitik etxea eskaintzen dugu, eta etxeko bezeroek gaztandegia bisitatu dezakete. Aurreikusitako bezala ari da funtzionatzen, eta lanpostu bat eta erdi sortu dugu.

Proiektu berri batean sartuta

2010ean, Erronkariko Enpresa Parkean (Burgi) proiektu berri jarri zenuten abian. Nola sortu zen ideia?

Enpresa txikia geratzen hasi zitzaigun, eta 2000. urtean proiektu berri bat lantzen hasi ginen. Enpresa parkea oraindik abiatu gabe zegoen; urte horretanxe hasi zen mugitzen. Aurreproiektu bat landu genuen, parkea noiz egingo zain. Parkea 2008an inauguratu zuten. Urte horretan hasi ginen aldaketarako urratsak ematen. Kontu hauek denbora behar izaten dute... Ez genion erabat heldu proiektuari espediente behin betikoz onartu eta diru-laguntza ziurtatu

ziguten arte, bideragarritasun plana ondo aterako bazen. 2010. urtearen hasieran heldu genion obrari.

Erronkari jatorri-deitura

1975ean eman ziren lehen urratsak deitura hori sortzeko, eta 1981. urtean sortu zen ofizialki.

Ezaugarriak:

- Latxa eta rasa ardi-esnea, Nafarroakoa baino ez.
- Gaztak beti egiten dira Erronkari Ibarrean.
- Esne gordinarekin.
- Gatzagia eta gatza baino ezin zaio gehitu.
- Gutxieneko ontzeak lau hilabeteak izan behar du.
- Azal naturalarekin, tratamendu plastikorik gabe. Eta lizuntzua, ezin da garbitu, nahiz eta olio aplikatu dakioken.
- Gazta begiduna, ez daiteke itsu izan.
- Honako parametro hauek bete behar ditu: pastaren kolorea, begiak, azala, uztarria, egitura, usaina, zaporea.
- Gazta bakoitzari lagina egiten zaio, eta horrek gutxieneko balioak gainditu behar ditu.

IZENA	Quesos Larra S.L.
Tokia:	Burgi
Sozietatearen helburua	Elikagaiak fabrikatzea, eta turismo sektorea
Lantzen duen merkatua:	
Langile kopurua	9
Instalazio berriarekin sortutako emplegu berria:	1 (administrazioan)

Nola uztartu dituzue proiektua abian paratzea, produkzioari eustea eta merkatu berrietan sartzea?

Duela sei urtetik hona, gutxi gorabehera gauza bera fabrikatzen ari gara. Orain krisiarekin ez dago halako alaitasunik erosterakoan. Produkzioan beherakada txiki bat izan dugu, eta aurrean ere, ziurrenik, gazta gutxiago egingen dugu; izan ere, bezero berriak eskuratu baditugu ere, eskaera globalak behera egin du, sektore guztietan bezala. Esportazioari eutsi diogu, neurri handi batean, berdintsu.

Zein bezero berri eskuratu dituzue? Zein merkaturatzeildo berri?

Zain zeuden, eta orain arte zerbitzatzerik izan ez diegun banatzaileak. Bestalde, esportatu egiten dugu, AEBetara batez ere. Orain Suedian hasiko gara saltzen, 'España Original' izeneko azokan izan dugun kontaktu baten bitartez. Iaz egon ginen aipatu azokan Cederna Garalur Elkartearekin batera. Esperientzia hori interesgarria izan zen, oso ondo antolatu zuten. Ciudad Realen, Mantxako gaztaren sorlekuan, egonik ere, arian-arian finkatuz doazen kontaktuak egin genituen, Suediako hau kasurako.

Zer onura ikusten dizkiozu Burgin kokaturik dagoen Erronkariko enpresa parke horri?

Onurarik nabarmenena dena batera edukitzea izan da. Lehen hiru lekutan geunden. Gainera, makineria berria sartu dugunez, egoera hobean egonen gara.

Zer nolako laguntzak jaso dituzue?

Proiektuak diruz lagundu daitekeenaren ehuneko 30.

Herrian eta ibarrean inplikaturik

'Quesos Larra' enpresaren gerentiaz gain, Burgin Udaleko zinegotzia zara, nola uztartzen dituzu?

Udalarentzat hobea da enpresarentzat baino, izan ere, beti uzten baitut enpresako lana Udalekoa betetzeko. Baina, esperientzia ona da, gauza aunitz lortu ditugu. Ibarri dagokionez, ibarra suspertzeko zutarrak paratu ditugu: enpresa parkea, eski estazioa... Zura ustiatzeko bide egokia falta dugu.

Zenbateko garrantzia du ibarrentzat enpresa parkeak?

Gutziz garrantzitsua da. Nafarroan halako instalazioak ez zituen zonalde bakarra ginen. Izateko egin zenean, Erronkariko enpresa bat hara joan zen. Hemen industri lurzorua egon izan balitz, beharbada enpresa hori orain hemen legoke.



Garrantzitsua da gauzak egin ahal izateko oinarria edukitzea. "Ez dugu inbertitzen lurrik ez dagoelako, eta ez dago lurrik inbertsiorik ez dagoelako", inertzia horrekin hautsi egin genuen. Lehen urratsa oinarria jartzea, hau da lurra eskaintzea zela pentsatu genuen. Une honetan ehuneko 30eko okupazioa dugu, eta laster ehuneko 40a izanen dugu. Biomazaren kontuak aurrera egingen balu, oso ona litzateke, ez soilik lanpostuengatik, beroa sortzeagatik, eta zonaldeko baliabide endogenoak erabiltzeagatik ere baizik.

Aholkuren bat

CG: Enpresaburu izanik duzun esperientziatik, zer aholku eman diezazkiokezu landa eremuetan negozioren bat abian paratu nahi duenari?

MA: Gustura lan egingen duzun sektore batean murgiltzea. Nik atsegin dut gaztak egitea... Ondoren, bideragarritasun plan on bat egitea. Ezertan hasi aurretik, ondo hausnartu, merkaturatu dagoen gainerakoarekiko aldea bilatu... eta behin ibiltzen hasita, murgildu buru-belarri; betiere, eskura duzun finantziario oso kontuan hartuta. Eta, jakina, ez ahaztu etengabeko prestakuntza. Zaila izan da nik urtean ikastaro bat edo bi ez egitea.

Bost markarekin: Larra, El Pastos Roncales, Uderki, Puente del Escal eta Sabores de Navarra.



Cederna Garalur Elkartearen informazio-buletin digitalak jaio dira

Cederna Garalur Elkarteak bere informazio-buletin digitalak eman ditu argitara turismoa, enpresak, sustatzaileak eta landa-garapeneri eta Elkartearen beraren jarduerari buruzko interes orokorreko berriak lantzeko.



Boletín Digital General
Noticias de actualidad

Abre el centro de interpretación de la leche en Arakil
Publicado en 2 febrero, 2011 by cederna

El pasado lunes, 28 de febrero se inauguraban las nuevas instalaciones del centro de Interpretación de la leche de Ganadería Etxeberri (que forma parte del grupo Lacturale). El acto estuvo presidido por el presidente del Gobierno de Navarra, Miguel Sanz. En el mismo participaron Luis Gárate y Esther Celaya, presidente y directora-gerente de Cederna Garalur, entidad que ha apoyado, a través del programa PDR Montaña de Navarra, la financiación del centro de interpretación de la leche. [\(Más Info\)](#)

Otros Boletines

- Boletín Empresas
- Boletín Turismo

Archivos

- marzo 2011
- enero 2011
- diciembre 2010
- noviembre 2010
- octubre 2011
- septiembre 2011

Categorías

- Asociación
- Desarrollo rural
- Empleo
- Europe Direct
- Medio ambiente
- Noticias informativas
- Nuevas tecnologías

Powered by Desarrollo rural, Medio ambiente | Comentarios desactivados

‘Turismoa’, ‘Orokorra’ eta ‘Enpresak’ izeneko informazio-buletinak, iaz aurkeztu zen enpresen atariarekin batera kaleratu ziren: “buletin horien helburua da Elkarteak lantzen dituen ekintzetan eta proiektuetan interesaturik dauden pertsona guztiei aipatu horiei buruzko eta hainbat sektoretarako interesekoak diren gaiet buruzko informazioa ematea”.

Buletinetara harpidetzeko, www.cederna.es web orriaren bitartez egin dateke; bertan, “banner” gailen batek harpidetzarako sarbidea ematen du. Enpresen eta turismo atarien bitartez ere harpidetu daiteke. Buletin horiek maiztasun batekin jasotzeko interesa dutenek Cederna Garalur Elkartearen web orrian eman dezakete alta, nola euskaraz hala gaztelaniaz.

Berriak harpidetzan alta emanda inplementatuz “blogetik” bertatik kontsulta badaitezke ere, erabiltzaileak buletina jasoko du bere posta elektronikoa, aldi-aldi; hartara, informazioa modurik errazenean helaraziko da. Horrekin batera, tresnak azkartasun handiagoz jakinarazi beharreko berriei edo gaiei buruzko ‘informazio alertak’ igortzeko aukera ematen du.

Komunikazio-mota hori abian jarri da informazioa alaitz gehien gerturatzeko asmoz, Informazioaren Teknologia baliatuz.

Oropesako adierazpena sinatu dute, Natura behatzearen inguruko turismo-produktuari buruzkoa

Abenduaren 22an, Oropesan (Toledo), 'Turespaña'k proposatu zien Gaztela-Mantxako, Gaztela eta Leongo, Galiziako, Nafarroako, Extremadurako eta Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariari, hau da Ingurumen, Landa eta Itsas ingurunetako Ministerioaren 'Reto Natura 2000' lankidetzaproiektuan parte hartzen duten tokiko ekintza-taldeei, eta natura lantzen duten hainbat GKeri Oropesako adierazpena sinatzea, natura behatzeko produktu bateratu bat garatzeko plan estrategikoa sortzen lan egingen duen ebatzorgano bat eratzeko helburuarekin.



Cederna Garalur Elkartek aipatu adierazpena sinatu du, eta adierazpen hori sinatu duten gainerako erakunde eta instituzioekin batera, eta horrek natura behatzeko produktua sortzeko eta sustatzeko baliagarria izanen den plan estrategikoa lantzeko eratu den lan-taldean parte hartzen hastea ekarri du, "turismoaren balio-katearen kate-begi guztietan 'turismo-produktuaren kluba' metodoari jarraiki" izeneko adierazpenean jasotakoa betez.

Taldeak, dagoeneko, heldu dio lanari. Lehen bilera urtarrilean egin zuen, FITUR-en, eta bigarrena, berriz, otsailean, ornitologiari buruzko nazioarteko azokan, Extremaduran. Bilera horietan, hainbat gai lantzen hasi dira: naturaren behaketaren inguruko turismo-produktuan espezializatu nahi duten xedeek eta enpresek bete beharko lituzketen baldintzen proposamenak, plan estrategikoa izan beharko luketen jardueraildoak.

Sortu den taldeak, plan estrategikoa definitzeaz gain, "turismo-sektorea, eta lurraldeak ordezkatzeko dituen, eta turismo eta ingurumen arloko administrazioen artean lankidetzara eraginkorragoa burutzeko baliagarria izanen den nazio mailako erakunde kudeatzailea sortzeko aukerak aztertuko ditu".

Esnearen interpretazio-zentroa ireki dute Arakilen

Pasa den otsailaren 28an (astelehena), Etxeberri (Lacturale taldeko kidea) ganadutegiko esnearen interpretazio-zentroaren instalazio berriak inauguratu zituzten. Ekitaldiaren buru Nafarroako Gobernuaren presidentea, Miguel Sanz, izan zen. Ekitaldian Luis Garate eta Esther Celaya, Cederna Garalur Elkartearen presidentea eta zuzendari-gerentea egon ziren. Elkarteak esnearen interpretazio-zentroaren finantziazioan lagundu du, Nafarroako Mendialdea LGP programaren bitartez.

Lacturale taldeak, interpretazio-zentroa publikoari zabaltzeaz gain, SAT Ganaderia Etxeberriren instalazio berriak inauguratu ditu Arakilen. Hainbat pertsona ospetsuz gain, ekitaldian parte hartu zuten, halaber, Landa Garapen eta Ingurumen kontseilari Begoña Sanzberro Iturririak, eta Gizarte Gaietarako, Familia, Gazteria eta Kirol kontseilari Maria Isabel Garcia Malok.

“Bisitariak ekoizpen-prozesuari, ontziratzeari eta esnea merkaturatzeari buruzko informazioa jasotzen du”

SAT Ganaderia Etxeberria 1990ean sortu zen; gaur egun 950 abelburu ditu, urtero 5,5 milioi litro-esne ekoizten du, 14 langile ditu eta Nafarroako ekoizpen integratuko esnea merkaturatzen duen Lacturale Taldeko 23 ustiapenetako bat da.

Esnearen interpretazio-zentroa
Ustiapeneko instalazioak zabaltzearen eta hobetzearen barnean, esnearen in-



Etxeberri ganadutegiko instalazioak, Arakilen

terpretazio-zentroa sortu da, herritarrei ekoizpen-sistema integratua zer den eta XXI. mendeko ganadu-ustiategiak duen lan egiteko moduari buruzko informazioa emateko eta horren inguruan hezteko helburuarekin. Interpretazio-zentroa ekoizpeneko instalazioen ondoan dago, eta bi eremu ditu. Lehenean, bisitariak ekoizpen-prozesuari buruzko informazioa jasotzen du, eta bigarrenean, berriz, esnea ontziratzeari eta merkaturatzeari buruzkoa. Bertan, enpresak merkaturatzen dituen hainbat esne-mota dasta daitezke.

Interpretazio-zentro berri horrekin Etxeberri ganadutegiak (Nafarroako mendialdea LGP programaren babesarekin proiektua sustatu duena) jarduera nagusia dibertsifikatzeko proiektua, turismo-sektorerara bideratuta, jarri asmo du abian, landa-ingurunea eta abeltzaintza gizarte osora, orokorrean, eta turistei eta partikularrei hurbiltze aldera. Proiektuaren onuradunak izanen dira turistak, Nafarroako, Gipuzkoako eta Arabako ikastetxeak, eta beste hainbat talde; erretiratuak, txangozaleak, familiak zein natur ingurunearekin, baserri mundua eta erabiltzen diren prozesuei eta teknologiei dagokienez punta-puntako ganadu-ustiategi bateko instalazioak ezagutzearekin kontzientziatuta dagoen beste edozein pertsona.

Gelak edozein baserri-tako ukuilu baten itxura du. Bertan azalpenak jasotzen dituzten kartelak, bideoak, pantaila eta jarduerarekin lotura duten apaingarriak daude: sardeak, kaikuak, eta abar.

Interpretazio-gela enpresaren irudi korporatiboaren zati izanen da. Garatuko diren ekintzen zabalpen-kanpaionak eginen dituzte, eta web orria paratuko dute linean, proiektuaren berri emate alde-



“Interpretazio-zentro berri horrekin Etxeberri ganadutegiak (Nafarroako Mendialdea LGP programaren babesarekin proiektua sustatu duena) jarduera nagusia dibertsifikatzeko proiektua, turismo-sektorerara bideratuta, jarri asmo du abian”

ra. Hori guztia, jarduera osoa barne hartuko duen marketin-plan espezializatu baten barruan. Proiektu horren beste helburuetako bat emakume batentzako lanpostua sortzea. Berak hartuko du bere gain esnearen interpretazio-gelako eta azienda-ustiategiko bisita gidatuak.

Proiektu horrek 60.000 euro jaso ditu Nafarroako Mendialdea LGP programatik, kontuan hartuta diruz lagun zitezkeen inbertsioa 239.776 eurokoa izan dela.

Agoizko uztartze-ituna sinatu dute

Urtarrilaren 11n, Agoitz herriko uztartze-ituna sinatu zuten. Argazkian, erakunde sinatzaile guztietako ordezkariak; horien artean, Cederna Garalur Elkarteak. Itunak Agoizko he-

rritarrei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzera bideratutako helburuetan elkarrekin lan egiteko konpromiso aktiboa eta parte-hartzailea proposatzen du. Asmoa da itunaren bitartez generoen ar-

teko harreman berria ezartzea, eta gizon-emakumeak inplikatzeko bizitza pribatuan zein publikoan parte hartze aktiboa izateko konpromisoan.



Nafarroako Mendialdeko enpresen kudeaketa eta marketina hobetzearen alde

Gaur egun, marketin 2.0, gizarte-sareak, Interneteko komunikazio gune berriak enpresei zuzendutako proposamenetatik askotan daude. Cederna Garalur Elkarteak, 'enpresak eta sustatzaileak' eta 'turismo' arloetatik, eta Elkarteke IKTB teknikarien sostenguekin, prestakuntza-ildo bat paratu du abian 2011n. Prestakuntzak bat egiten du orain arte lantzen ari den enpresa-kudeaketaren ingurukoarekin: fakturazioa, kobrantza, kostuak, eta abar.

Aldizkaria ixterako, 10 ikastaro eman dira, eta horietan batez beste 6 lagunek hartu dute parte, mendialdeko eskualdeetako enpresetako gerenteak eta teknikariak. Enpresaren eguneroko kudeaketara bideratutako prestakuntza da, oso praktikoa eta eraginkorra. Halaber, enpresak Interneten posizio-

natzea ere landu da, merkaturatzeko bide baliagarria baita.

Prestakuntza presentziala 2011. urte osoan egingen da hainbat udalerritan, eta prestakuntza hori jasotzaileen herrietara al bait gehien hurbiltzen saiatuko gara. Interesa duen enpresa orok ikasta-

roen egutegia kontsulta dezake aldizkari honen erdialdeko orrialdeetan.

'Klase' presentzialez gain, urrutiko aholkularitza pertsonala emanen da, 2.0 komunikazio modu berriak baliatuta, eta betiere, jarduera errentagarriak, erakar-garriak eta berritzaileak izatea bilatuz.

2010ean 50 enpresa plan jarri dira abian

Etorkizuneko enpresen planak dira, krisi-garaian, Nafarroako Mendialdean negozioa aurrera ateratzen saiatzen diren eta Cederna Garalur Elkartearen sostengua jaso duten pertsonak. Cederna Garalurrek Elkarteak sortu zenetik ematen du zerbitzu hori, eta urtez urte sakondu eta hobetu egin da. Zerbitzua baliatu duten ekintzaileek oso positiboki baloratzen dute aipatu zerbitzua.

Enpresa-plana Cederna Garalur Elkarteke 'enpresak eta sustatzaileak' arloko teknikariek egiten dute. Elkarteak Nafarroako Mendialdeko sustatzaileen esku paratzen du, eta, kasu guztietan, prozesu logikoa da negozioa bideragarria izanen den ala ez jakiteko.

Plan bakoitzaren emaitza oso erabilgarria eta praktikoa da negozio edo jarduera berri bat abiaraztea erabaki duten pertsonentzat edo entitateentzat.

Turismo-sektorea nabarmentzen da
Turismo-sektorean egin dira plan gehien (16), eta ondoren merkataritza-sektorean (10), zerbitzu sektorean (9), nekazaritza-ko elikagaien eta elikagaien banaketako sektorean (7), zurgindegietan (3), industria-sektoreko enpresetan (2), eta azke-



nik, bana honako sektore hauetan: hezkuntza/gizarte-integrazioan, esku-langintzan eta nekazaritza eta abeltzaintzan.

Bidasoa-Malerreka eta Bertizarana, oso aktiboak

Jarduera-esparruka, aktiboena 2010ean Bidasoa-Malerreka eta Bertizarana izan da: 16 enpresa-plan egin dira. Ondoren, Erroibar/Aezkoa/Esteribar eta Agoitz/Irunberri datoz; bietan 8na plan egin dira. Sakanan 7 plan egin dira, 3na

Leitzaran/Larraun/Ultzaman eta Baztanen, 2 Zangoza eskualdean, bana Erronkarin eta Zaraitzun, eta beste 2 gainerako jarduera-eremuetan.

Aipatu beharra dago biztanleria gutxi-ko herrietan turismo-sektoreak duela mugimendu gehien; landetxeen nahiz turismo-establezimendu enblematikoen bitartez. Sektore horretan egin dira enpresa-plan gehien.

Bestalde, gainerako sektoreak biztanleria gehiago duten udalerrietan (zerbitzua eskualde osoari eman diezaioketenetan) ageri dira.

8 enpresa beren marketin 'on line' planak diseinatzen hasi dira

Ekimen berri honetan parte hartzen hasi diren enpresen aukeraketa urteko lehen hilabeteetan egin da. Ekintzari oso harrera ona egin diote enpresek, eta bukatutakoan enpresa bakoitzak bere marketin 'on line' plana ezarrita edukitzea espero da.



Zortzi enpresek jasoko duten prestakuntza prozesuaren aurkezpena.

Hasi berri den esperientzia RITER proiektuaren barnean kokatzen da, asmoa izanik landa-eremuko ekintzaileari zuzendutako Berrikuntzako Sare Teknologikoa sortzea. Ingurumen, Landa eta Itsas Ministerioaren sostengua babesa duen lankidetzako proiektua da, eta bertan Aragoi, Kanaria, Extremadura, Gaztela Mantxa, Andaluzia, Katalunia eta Nafarroako tokiko ekintza taldeek hartzen dute parte. Proiektuaren amaieran, aipatu lurralde horietako 80 enpresek marketin 'on line' plana izanen dute ezarrita, eta merkaturuan hobeto posizionatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta tresnak izanen dituzte.

Marketin plan hori lortzeko, aukeratuak izan diren enpresek prestakuntza plan bat (bai presentziala zein urrutikoa) jasotzeko konpromisoa hartzen dute. Halaber, aholkularitza eta 'coaching' arloetan laguntza jasoko dute.

Prestakuntza

Martxoaren 1ean hasi da Cederna Garalur Elkartearen egoitzan, zortzina orduko bi saio presentzialekin. Saio presentzial horien ondotik, 'on line' prestakuntza paratuko da abian, eta hiru hileko iraupena izanen du. Aldi berean, enpresa bakoitza aholkularitza arloko laguntza jasotzen hasiko da; orokortasunaren ikuspegia jasotzea ahalbidetuko duen elkarrizketa pertsonal batekin hasita, enpresa bakoitzari marketin plan pertsonalizatua ezartzen laguntze aldera.

'Enpresak eta sustatzaileak' arloak, ekimen horretan laguntzeko, prozesu bakoitzaren jarraipen zehatza eta pertsonalizatua eginen du, enpresei proposatutako gomendioak abian paratzen lagun egiteko.

Eginez erakutsi

Planaren helburuetako bat 'eginez erakustea' da. Enpresen ikaste prozesuan parte hartze aktiboa izanen da, enpresek

Interneten bitartez merkaturuan duten lehiakortasuna benetan hobetuko duen plana egin dezaten.

Parte hartuko duten 8 enpresa aukeratuak talde aditu bat izanen dute beren eskura, baita plana burutzeko beharrezkoak dituzten tresna teknikoak ere; horien artean, berariaz proiekturako den 'RITER gizarte sarea' sortzea, eskualde guztietan proiektuan parte hartzen duten enpresa guztiek elkarri eragin diezaioaten, eta sinergiak eta lankidetzako gune guzargarriak bila ditzaten. Horrez gain, prestakuntza edukiak berariaz ekintza honetarako diseinatu den 'e-learning' plataforma batean egonen dira erabilgarri.

Banakako prestakuntzak oinarri dituen eduki generikoek lau gai nagusi landuko dituzte: merkataritza elektronikoa, web posizionamendua, gizarte sareetan negozioa sortzea, eta web 3.0 eta teknologia berriak.

Cederna Garalur Elkartearen Europe Directek 'Europar herritartasuna' programari buruzko CDa eman du argitara

"Senidetzea bi udalerriren arteko topaketa da. Aipatu topaketa publiko egitea adosten dute, helburua izanik Europaren perspektibaren barnean jardutea, senidetutako udalerriek dituzten arazoak kontrastatzeko eta gero eta estuagoak izanen diren adiskidantzazko loturak garatzeko" Jean Bareth

ESKAERA POSTA BIDEZ
EGIN DEZAKEZU:

EUROPADIRECT@CEDERNA.ES

EDO
948 20 70 59
TELÉFONO-ZENBAKIRA
DEITUTA



Senidetzeetara bideratutako web europarraren irudia

Europe Directek urrian Xabierren 'Europar herritartasuna' izeneko programa aurkezteko antolatu zuen jardunaldiaren ondoren, Cederna Garalur Elkartearen Europari buruzko informazio guneak material ugari jaso du CD batean aipatu programaren berri emateko. Programaren jarduera ildo nagusietako bat hirien/herrien arteko senidetzeak eta sareak sortzea da.

Helburua: toki-erakundeei informazioa helaraztea udalerriren arteko senidetzeak bultzatzeko, eta, horrela, Europako herrien arteko lankidetzeta eta elkar ulertzea errazteko.

Halaber, europar herritartasunaren kontzeptua landu asmo da.

Talde hartzailea: tokian tokiko entitateak eta teknikariak.

Azalpena: Europako senidetzeak garatzeak aukera ematen die herritarrei eta udalei esperientziak eta ezagutzak trukatzeko, eta herritarren parte-hartze zuzena bideratzeko, horrela, herrietara europar integrazioaren onurak eramanez. Arazoak elkarrekin partekatuzko, iritziak trukatzeko eta senidetutakoen interesekoak diren gaiei buruzko ikuspuntu desberdinez jabetzeko aukera ematen du.

CDak, Europako beste udalerriren batekin senidetzeko edo sarea sortzeko asmoa baduzu, eginkizun horretan interesgarriak eta lagungarriak izan daitezkeen dokumentuak jasotzen ditu.

Bertan topatuko duzu: senidetzeen historiari buruzko informaziorako sarbidea; kontuan hartu beharreko oinarrizko aholkuak; 'Europa Herritarrekin' programa, bere neurrietako zenbaitekin senidetzeak eta senidetutako hirien sarea sortzea finantzatzen duena; intereseko estekak, bazkide bilatzailea, kasurako; aurkezpen interesgarriak biltzen dituen irakurketaren txokoa, programari buruzkoa eta CDaren gaiekin lotura duten beste materialei buruzkoa.

Lehen eskuko europar informazioa: Europako programen aurkezpeneko sarbidea

Europe Direct sareko kide izateagatik dugun aukeretako bat da Europako programen eta horien deialdien inguruan dauden nobedadeei buruzko lehen eskuko informazioa izatea. Europako Batzordeak Madrilen duen ordezkariak interesa duten pertsona guztiei zabalik dauden europar programak aurkezteko jardunaldiak antolatu zituen bere lokaletan.

Urtarrilaren 20an, 'Media' izeneko europar programa aurkeztu zuen Europako Batzordeak Espainian duen ordezkariak. 'MEDIA' programaren xedea da ikus-entzunezko industriari sostengua ematea, zentzurik zabalenean. EB osatzen duten herrialdeetan, harremanetarako eta laguntzarako guneak ditu: MEDIA desks izenekoak. 'MEDIA' programari eta horren funtsei buruzko informazio-saio hori Madrilgo kontaktu guneak antolatu zuen, eta Espainiako MEDIA desk bulegoaren zuzendari Jesus Hernandezek moderatu zuen.

Gure Europe Direct guneak jardunaldi eredu horren aurkezpenen parte hartu zuen, Europako programei eta deialdiei buruzko lehen eskuko informazioa jasotzeko.

Europako Batzordeak Madrilen duen ordezkariak gonbidapena luzatu dio Europe Direct sareari saio eta jardunaldi horiei buruzko informazioa eman dezan, eta Europako kontaktu sareen artean sareko lanari sostengua eman diezaion eta lan hori bultzatzea; alegia, Europako instituzioetan networking (sarean lanean) izenaz ezagutzen dena.

Otsailean, Kultura programa aurkeztu zen Donostian. Kultura 2007-2013 programak Europako herrien kultur gune komuna garatzen laguntzen du. Urtero, elkartetan edo saretan eraturik burutzen diren kultur ekitaldi eta proiektuak bultzatzen dira.

Martxoan 'LIFE +' programa aurkeztuko dute Madrilen, LIFE + programaren bosgarren deialdia argitara eman ondoren. Programak 265,36 milioi euro banatuko ditu honako hiru osagaietako bategatik txertatzen diren proiektuak batera finantzatzeko: natura eta bioaniz-



tasuna, ingurumen politika eta gobernantza, eta informazioa eta komunikazioa.

Saio horien helburua da 2011ko deialdien edukiaren berri ematea, eta egon daitezkeen eskatzaileei laguntzea propo-

samen bat aurkeztu ala ez erabakitzen, proposamenak aurkezterakoan kontuan hartu beharreko funtsezko aferak azpimarratuz, ohikoek diren arazoak saihesteko aldera.



Diario de Noticias egunkariak utzitako argazkia. Argazkigilea: Ondikol

Bisita “Nafarroako Mendialdea” Turismoa Dinamizatzeko Planeko hiru proiektutara

Abenduaren 30ean, Luis Garatek eta Esther Celayak (Cederna Garalur Elkartearen presidentea eta zuzendari-gerentea, hurrenez hurren), eta Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilariak eta Turismo Departamentuaren zuzendariak Baztan-Bidasoa eskualdeko hainbat turismo-proiektu bisitatu zituzten, bertatik bertara ezagutze aldera. Aipatu proiektuen artean ditugu Cederna Garalur Elkarteak kudeatzen duen eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen duen “Nafarroako Mendialdea” Turismoa Dinamizatzeko Planak bultzatzen dituen hiru proiektu.

Proiektuak honako hauek dira: ‘Legasa-Donztebe’ natur bideko tartea egokitzea, Urdazubiko leizeetan bisitariari harrera egiteko, informazioa emateko eta arreta egiteko gunea, eta Ikaburuko leizearen soinu-ztapena berritzea.

Urdazubiko leizeak

Urdazubiko alkate Santiago Villaresek egin zien harrera; honek, leizeetako teknikariak eta Baztango tokiko garapen-eragilea lagun zituela, bisitariari harrera egiteko, informazioa emateko eta arreta egiteko gune berria erakutsi zien.

Bisitaren beste une bat Ikaburuko leizearen soinu-ztapen-proiektua izan zen, non soinu-ztapena babesteko eta energia aurrezteko sistema ezarri baita. Lanen barnean, soinu-sistema berritu da eta gune berriak sortu dira, argiz eta soinu

horniturik, eragimen energetikoa aintzat hartuta. Halako guneen habitat naturala hondatzen duten goroldio eta likenen ugaltzea ezabatu da, eta leizeko estalakitak eta estalagmitak eta fauna egoera onean iraunarazteko tenperatura egokia gordeko da.

Hobekuntza horiei esker, haitzuloko ibilbideak 40 minutu irauten du orain. Horrez gain, animalia-espezie berriak ikus daitezke: besteak beste, leizean ohikoa den araknidoa, zuria eta itsua, ‘abasola sarea’ izenekoa; halako ezaugarriak dituen bakarra munduan. Halaber, lehen ikus zitezkeen espezieak, saguzarrak kasurako, errazago ikus daitezke orain.

Legasa-Donztebe Natur Bidea

Ondoren, Donztebera joan ziren, Natur Bide horren Legasatik Donzteberainoko

tartean egin diren lanak ikusteko. Donzteben zain zituzten Miguel San Miguel (Donztebeko alkatea), Andres Etxenike (Bertizaranako alkatea), Gloria Aguerri (Malerreka eskualderako Cederna Garalur Elkartearen ordezkaria), eta zonalderako garapen-eragilea. ‘Txikito’ izeneko trenaren natur bidearen tarte horretan bide-zorua egokitu da, eta babesgarriak paratu dira. Proiektua natur bideen programaren barnean garatzen ari den trenbideak berreskuratzeko ekimenean txertatzen da.

“Europa erromanikoa” eta “natura behatzeko turismoa” FITUR 2011n izan dira

Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurune Ministerioak Fitur 2011n izan duen standak Landa Sare Nazionalak sostengatzen dituen hainbat lankidetzak proiektu jaso zituen; besteak beste, Cederna Garalur Elkarteak partaide den “Europa erromanikoa” eta “Reto Natura-2000”. Horrez gain, eta azokaren barnean, Q gaua ospatu zen, eta ekitaldian Nafarroako Mendialdeko hainbat enpresek aintzatespena jaso zuten. Horrela, kalitatea agerian geratu zen, produktu erakargarriak eta geroa izanen duten produktuak sortzeko baliagarriak diren proiektu berritzaileei arreta berezia eskainiz.

“Europa erromanikoa” izeneko proiektua, turismo ereduaren aldatzeko erronkan

Urtarrilaren 22an (larunbata), Ingurumen, Landa eta Itsas Ministerioak FITUR-en zuen standean “Europa erromanikoa” izeneko proiektua aurkeztu zuen Jose Manuel Merino Gutierrezek, Leadercal Montaña Palentina-ren gerente eta Cederna Garalur partaide den proiektu horren koordinatzaileak.

“Gure herrialdeko landa-eremuan turismo-produktu arduratsuak eta jasagarriak finkatzea lortu nahi dugu”

Proiektuaren helburuak eman ziren eza-gutzera, baita garatzen ari diren ekintzak eta proiektuan parte hartzen duten taldeak eta lurraldeak ere. “Europa erromanikoa” Ingurumen, Landa eta Itsas Ministerioak finantzatzen duen lankidetzak proiektua da. Ingurumen, Landa eta Itsas Ministerioak Landa Sare Nazionalaren bitartez sostengatzen dituen turismo arloko proiektu guztiei buruzko informazioa eman zien bisitariari FITUR-en paratu zuen standean. Proiektu horiek guztiak ‘El reto de un cambio en el modelo turístico’ izenburua daraman argitalpenean jaso dira. Horretan, honako hau azpimarratu zuten Ministerioaren Landa Sare Nazionalaren arduradunek proiektuen aurkezpenean: “Gure herrialdeko landa-eremuan turismo-produktu arduratsuak eta jasagarriak finkatzea lortu nahi dugu”.

“Europa erromanikoa” proiektu horietako bat da, kultur ondarearen arloan txertatua. Lan ildo estrategiko horren barnean txertatzen den beste proiektu bat “Reto Natura 2000” da.



Europa erromanikoaren standa

Natura behatzea

Turismoa ulertzeko modu berri horren barnean sortu da 'Reto Natura 2000' proiektua. FITUR dela-eta, "Destino Rural" aldizkariak ale berezia kaleratu du, Nazioko Landa Sarearen lankidetzara proiektura, "Reto-Natura 2000" izenokora, zuzendua oso-osorik. Cederna Garalur Elkarteak aipatu proiektuan parte hartzen du Espainia osoko toki garapenerako beste 29 talderekin batera.

Aldizkariak, azalean, Iratiko arrabioa jasotzen du, eta honako hauek bere 51 orrialdeetan: proiektuaren deskribapena eta helburuak, eta 'Reto Natura 2000' proiektuan parte hartzen duten lurraldeen ezaugarriak: Aragoi, Extremadura, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Katalunia eta Nafarroa.

Proiektuan parte hartzen duten tokiko ekintza taldeek orrialde bana izan dute aldizkarian beren lurraldearen berri emateko, eta bertara joanez gero, bisitatu beharreko lekuen berri emateko. Hori guztia modu grafikoan eta erakargarrian. Horrek natura behatzeko proposamen interesgarri bihurtzen du aldizkaria.

Aldizkariaren 3.500 ale kaleratu dira: horietatik 400 FITURen banatu dira, talde bakoitzak 50 jaso ditu banatzeko, 800 salgai jarri dira kioskoetan 3na euroan, eta gainerakoak hainbat azokatan banatuko dira 2011. honetan. Aldizkaria honako webgune honetan kontsulta daiteke: revista.destinorural.com



Q gaua

Urtarrilaren 19an, FITUR azokaren barnean, "Q gaua" ospatu zen. Egoitza berean ospatu zen berriro ere, Santiago Bernabeu futbol-estadioaren ohorezko palkoan. Nafarroako Mendialdeko hamar establezimenduk jaso zuten aitortpen hori; batzuek turismo-kalitatearen Q berritu zuten, besteek lehenengoz jaso zuten.

Ekitaldian saria jaso zuten establezimenduetatik hiruk hartu zuten parte: Elgorriagako bainuetxeak, Elgorriagako bainuetxe hotelak eta Izkueko Zurgijñekoa landetxeak. Gainerako ostatuak ezin izan zuten bertan egon, honako hauek: Loretxea I landetxea,

Irunberriko Arroila natura-erreserba, Bertizko Jaurerria Natura Parkea, Iru-Bide hotela, Besaro landa-hotela, Ultzamako Benta hotela eta "El Secreto de Ollo" ostatuak.

Kalitatearen Q ziurtagiria jaso zuten establezimenduekin batera egon ziren Nahikari Uriarte eta Soraya Diez, biak ere Cederna Garalur Elkarteko kideak. Ekitaldian 1.300 lagunek, gutxi gora-behera, hartu zuten parte. Turismo Kalitatearen Institutuak (ICTE) antolatu zuen ekitaldia, eta partaideen artean ziren Estatuko Turismo Idazkaria eta ICTEko presidentea, Joan Mesquida eta Miguel Mirones, hurrenez hurren. Beren



Nafarroako enpresaburuek turismoaren kalitatearen Q ziurtagiria jasotzen.

hitzetan, ekitaldia erreferente bihurtu da FITURen barnean, eta aitortpena jaso duten enpresak lan eta gauzak ondo eginaren eredu.



Manuela Sampaio andrea, Esther Celaya andrea, Jose Antonio Navarro jauna eta Maria Montero andrea Kongresuan zaldi-turismoaren inguruan egindako mahaiari.

“Zaldi turismoa” eta “ Bileren turismoa”:
*Nafarroako Turismoari buruzko
 Nazioarteko II. Kongresuan
 aurkeztutako etorkizun
 handiko bi proposamen*

Nafarroan antolatu da landa-turismoari buruzko II. kongresu hori. Cederna Garalur Elkarteak kongresuan parte hartu du bi mahai-inguru koordinatzen, batetik, zaldi turismoa eta, bestetik, bileren turismoa aztergai izan dituztenak.



Nafarroan, Baluartean, antolatutako Landa Turismoaren inguruko II. Kongresuko partaideak.

Zaldi turismoa, aukera

“Zaldi turismoa: espezializazioaren eredu landa turismoan” izenburupean, mahai-ingurua Cederna Garalur Elkartearen zuzendari gerente Esther Celaya Carrascalek koordinatu eta moderatu zuen.

Mahaiaren xedea zen turismo sektoreari zaldi turismoa hurbiltzea turismo egiteko modu berri gisa. Izan ere ibilbide luzea eta etorkizun oparoa izan baitezake. Halaxe utzi zuten agerian ondorengo eztabaidan erakutsitako interesak eta egingadako galdera zehatzek.

Mahai-inguruan, moderatzailearekin batera, honako hauek hartu zuten parte:

Maria Montero andreak, Orne eskualdeko (Frantzia) nekazaritza-ganberan turismo aferetan arduradunak, eta Normandia Behereko zaldi kontseiluaren ordezkariak; ho-

nek, beste hainbat aferen artean, bere eskualdeko, eta hedapenez Frantziako zaldi erakundea aurkeztu zuen, sektorean tradizio handikoa. Zaldia ardatz hartuta antolatzen diren ekintzak eta horiek ekartzen duten mesedea izan zituen hizpide.

Portugalgo Adrepes tokiko ekintza taldearen gerente Manuela Sampaiok besteak beste tokiko ekintza taldeak sostengatu zituen eta egun ere sostengatzen dituen zaldi turismoaren inguruko proiektuak aurkeztu zituen, eta turismo mota horrek sektorea garatzeko duen garrantzia azpimarratu zuen.

Navarro jaunak egindako aurkezpenen, turismo mota berri hori bultzatze aldera halako turismo azpiegiturak martxan jarri ahal izateak duen garrantzia azpimarratu zuen.

Eta, azkenik, Adelquivir Tokiko Ekintza Taldearen gerente Jose Antonio Navarro jaunak hartu zuen hitza, eta bere eskualdearen garapen sozioekonomikorako plan estrategikoa eta ondorioak aurkeztu zituen. Halaber, aipatu zuen aterako ondorio horiez geroztik zaldiaren inguruko bi proiektu landu dituztela: horietako bat bukatuta, eta bestea gauzatzeko bidean, biak ere 'Zaldi Ostatuen Sare Europarra' izenpean.

Ingurumen, Landa eta Itsas Inguruneako Ministerioak sostengatzen duen lankidetzaren proiektua da. Estatz gaindikoa proiektua da, eta 5 tokiko ekintza talde hartzeko parte, hainbat autonomia erkidegotako eta Europako eskualdeetakoak: Espainian Andaluzia, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa, eta Portugalen Adrepe.

Navarro jaunak egindako aurkezpenean, turismo mota berri hori bultzatzeko aldera halako turismo azpiegiturak martxan jarri ahal izateko duen garrantzia azpimarratu zuen. Proiektua eta proiektuaren lan aukerak aipatu zituen, baita bazkide guztiak turismo-entresaburuei trena baliagarriak emateko egiten ari diren bidea ere.

Cederna Garalur Elkartearen proiektu horren zati da. Izan ere, mahai-inguruaren moderatzaileak kongresuan aipatu zenez, 'alternatiba berria da, garatu gabeko turismo aukera berria gure Foru Erkidegoan'.

"Zaldi Ostatuen Europako Sarea" izeneko proiektuan Andaluziako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Adrepeko (Portugal) 5 tokiko ekintza talde hartzeko parte.

"RCB-Rural Convention Bureau"

Bestalde, Kongresuan 'RCB Rural Convention Bureau' izeneko lankidetzaren proiektua aurkeztu zen. Proiektua Cederna Garalur Elkarteak kudeatzen du, eta 5 tokiko ekintza talde hartzeko parte.

Cederna Garalur Elkartearen zuzendari gerente Esther Celayak aurkeztu zuen proiektua, landa-eremuetan bileren turismoa sustatzeko aukera ezin hobetzat jotzen dena. Horren bitartez lortu asmo da landa-turismoaren urtarokotasuna saihestea, gutxiegi erabiltzen diren azpiegitura publikoei erabilera berriak ematea, eta bileren turismoaren merkatuan ekitaldiak, bilerak, kongresuak... antolatzen dituztenek gero eta gehiago eskatzen duten produktu-eskaintza jartzea bileren turismoaren merkatuan.



Zaldi-turismoa, ustiatu gabeko aukera

Halaxe adierazi zuen Raymond Torrensek, ekitaldiak antolatzen dituen Torrens & Friends agentziaren (Bartzelona) arduradunak: "enpresek leku apartekoak, lasaiak bilatzen dituzte, aisiarako aukerak, natur aberastasuna dituzten lan eremuak... landa-eremuak abantailak ditu alderdi horretan..."

Mahai-inguru baten parte zen proiektua, non bileren turismoak dituen aukeren ikuspegia eman baitzen: horretan, Nuria Valverdek 'bilerak Oloteko sumendien tartean' izeneko esperientziaren berri eman zuen, eta Ruben Arnandisek Valentziako Erkidegoaren barnealdeko 'Convention Bureau'-k (CBI Valentzia) duela bi urtetik hona egindako lanaren berri.

Bileren turismoak, eta zehazki 'Rural Convention Bureau' proiektuak oso harrera ona izan zuten, eta Espainiako hainbat autonomia erkidegotako lurraldeen arteko harremanak ezarri ziren.

Bi aurkezpenek agerian utzi dute Landa Sare Nazionalaren barnean tokiko ekintza taldeek egiten duten lana turismo sektorea suspertzeko eta dibertsifikatzeko etorkizun handiko estrategia gisa finkatzen ari dela.

Landa bisita

Nafarroan egindako egonaldia baliatuta, zaldi turismoari eskainitako mahaian parte hartu zuten hizlariak arlo horretan garatutako hainbat esperientzia ezagutu zituzten; horietako batzuk dagoeneko finkatuak, eta besteak garatze bidean. Atsegin handiz hartu zituzten ekimenak eta azpiegiturak, baita aurrera begira egon daitezkeen aukerak ere.

Landa-bisitaren eginda, 'Zaldi Ostatuen Sare Europarra' izeneko proiektuaren koordinazio-bileran (otsailaren 22a, Madril), proiektu honetako bazkide guztien hurrengo bilera Nafarroako Mendialdean egitea erabaki zen; horrenbestez, uda aitzinetik eginen da bilera hori. Hainbat egunez, proiektuko bazkide guztiek bertatik bertara ezagutu ahal izanen dituzte esperientzia horiek, eta horrez gain, proiektuaren jarraipen-lana egiten segituko dute, eta aurrerapenak egiazta-tu ahal izanen dituzte.

Berrasmatu erakartzeko

'Berrasmatu erakartzeko' izenpean burutu zen Nafarroako Turismoaren Nazioarteko II. Kongresua otsailaren 17an eta 18an. Cederna Garalur Elkarteak aipatu kongresuan parte hartu eta lagundu du. Hainbat esperientzia eraman dira bertara, eta lau gairen inguruan egituratutako mahaietan aurkeztu dira:

- Berrikuntzaren garrantzia landa turismoarekin lotura duten negozioak berrasmatzeko: teknologia berriak landa turismoaren zerbitzura.
- Bidaiari gehiago erakartzeko promozio modu berriak; horretarako, on line bidez sustapena lantzeko bitartekorik garrantzitsuenen ordezkariak hartu ziren kontuan.



Bileren turismoa Nafarroako Mendialdean

"Berrasmatu erakartzeko" lelopean egin zen, Nafarroan, Landa Turismoari buruzko Nazioarteko II kongresua.

- Landa turismoan merkaturatzeko aukera berriak: turista gehiago erakartzeko estrategiak, merkaturatze sistema berriak.
- Espezializazioak duen garrantzia, beste inon ez diren ekimenen bitartez. Puntu honetan, Europako hainbat herrialdetan egindako proposamenak aurkeztu ziren.

Kongresua Nafarroako Landa Turismoaren Federazioak eta Nafarroako Gobernuak antolatu zuten, eta Navartur-eko teknikariek koordinatu zuten. Azken horrek hainbat erakunderen laguntza jaso zuen koordinazio lan horretarako. Kongresuan 250 lagunek hartu zuten parte, bai Nafarroakoek, bai beste autonomia erkidegotakoek, zein Europako hainbat lekutakoek.

Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilari Juan Ramon Corpas jaunak, eta Landa Turismoaren Federazioaren presidente Txus Rey andreak inauguratu zuten. Ekitaldiari amaiera turismo zuzendari nagusi Carlos Erce jaunak eman zion, eta halako ekimenak antolatzeak pizten duen interesa azpimarratu zuen.

Turismo-politika



Esther Celaya Carrascal
Zuzendari gerentea
Cederna Garalur

Turismoa industria estrategikoa izatera pasa da eskualde eta herrialde askotan. Gobernuak neurketa sakona egiten hasi dira, ohiko oinarrizko adierazleak (bisitari kopurua eta ostatu gauen kopurua, besteak beste) alde batera utzita, seriotasun eta zorroztasun handiago baten alde egin dute, horretarako, tresna zehatzagoak baliatuz, turismoak izan dezakeen eragin ekonomikoa baloratzea ahalbidetuko duen analisi sakonagoa egite aldera. Gobernuak egiaztatu ahal izan dute sektore horrek beren ekoizpen sisteman betetzen duen eginkizun garrantzitsua.

Izan ere, aunitzetan industria garrantzitsu baten aurrean gaude, egiten dituen ekarpenei erreparatuta: enpleguari, Barne Produktu Gordinari, barne kontsumoari, esportazioei, eta bildutako zer-



gen bitartez toki administrazioen sarre-
ra aurrekontuei, besteak beste, errepara-
tuta.

Nolanahi ere, turismo-arloa gero eta kon-
plexuagoa da.

Alde batetik xede gehiago daude, eta be-
raz, gero eta turismo- eta aisia-proposa-
men gehiago sartzen dira lehian merka-
tuan, eta, bestetik, bezeroa gero eta adi-
tuagoa da horretan guztian, ingurune
teknologiko aldakor batean. Hortaz, tu-
rismo esparru berri horrek erronka ba-
ti heltzera behartzen gaitu:

zerbitzu eta produktu karta berri bat era-
tzea (orain artekoak berrituta, edo pro-
dutu linea berriak sortuta), kudeaketa
eredu egokia izanen duena, eta beti be-
zala negoziorearen ardatz den bezero be-
rri horri zuzenduta eta egokituta.

Edonola ere, kontua izanen da nola
orientatu turismo xede iraunkor bate-
rantz. Erantzunak, xedeak arrakastaz
(konparatiboki eta lehiatsuki) lehia dai-
tezkeen turismo sektoreen lehen aukera-
keta eta lehenespen estrategikora gara-
matza.

Epe motzetik urrunduko den ikuspegia-
rekin egindako aukeraketa, eta adminis-
trazioen bultzada ere izanen duen auke-
raketa.

Bezero egokiak, gastu gaitasun handia-
goa dutenak, aldiekiko (orain bizi dugu-
na kasurako) eta ziurgabetasunarekiko
horren sentsibleak izanen ez diren beze-
roak, aztarna ekonomiko indartsuagoa
duten bezeroak erakartzeko aukera eman-
en diguten sektoreak. Profil hori lukeen
turismoak berebiziko laguntza emanen
lioke turismo inbertsio publiko nahiz pri-
batuen susperraldi ekonomikoari, turis-
moa hartzeko eta pizteko ezinbesteko in-
bertsioak.

Izan ere, erreferente izanen den xedea
nahi badugu, horrek ausardiaz lehiatu
beharko du, indarrez ohikoak diren edo
gorabidean datozen beste xedeen au-
rrean; betiere, berrikuntzaren ildotik.



Duela urte batzuk promozio estrategiak edo prezioak jaistekoak baliagarriak izan zitezkeen, gaur egun, ordea, sinpleegiak dira.

Xede bat posizionatzeak, erreferente izanen den xede gisa posizionatzeak gainera xedeekiko bestelakoa dela erakustea eskatzen du; prezioagatik baino produktu aukera, kalitate nahiz profesionaltasunagatik.

Baieztapen horrek garrantzi handiagoa hartzen du turismoa kanpoko turistak erakartzera bideratzen badugu; hau da, lehia prezioaren nahiz promozioaren parametroetan kokatuta, askotan ia ezinezkoa gertatzen zaigu lehiatzea.

Horrela ba, produktu berritzaileak baliatuz Nafarroa turismo xede erreferente bihurtzen laguntze aldera, Cederna Garalur Elkartea hainbat turismo ekimen lantzen murgilduta dago. Iruñean berriki egin den landa turismoari buruzko nazioarteko II. kongresurako Cederna Garalur Elkarteak bi gairen inguruko bi mahai koordinatu zituen. Une honetan, Ingurumen, Landa eta Itsas ingurune Ministerioak finantzatzen dituen bi proiekturen bitartez, aipatu bi gai horiek lantzen ari gara: zaldi turismoa eta bileren turismoa landa eremuetan.

“Erreferente izanen den xedea nahi badugu, horrek ausardiaz lehiatu beharko du, indarrez ohikoak diren edo gorabidean datozen beste xedeen aurrean; betiere, berrikuntzaren ildotik.”

Zaldi turismoa turismo espezializatua da, zaldia oinarri duena, eta publiko zehatz bati zuzendua.

Zaldiak, aisiaren ikuspegitik begiratuta, milioika lagun erakartzen ditu urtean mundu osoan. Xedea aukeratzekoan, beren lehentasunak dituzten turistak.

Hala ere, turistek xede horien aukera eginda ere, zenbaitetan ez da zerbitzu edo azpiegitura egokirik egoten zaldi turismoa egiteko. Horrek, turista horiek hasieran aukeratutakoak ez diren beste xede batzuk aukeratzera bultzatzen ditu, zaldi turismoa egin daitekeenetara.

Zenbait herrialdek aukera ikusi zuten sektore horretan. Frantziak, Alemaniak, Kanadak eta AEBk turismo aukera hori garatu dute, arrakastaz garatu ere.

Esperientzia horiek agerian utzi dute oso turismo espezializatua izanagatik ere, aukerak dituen proposamena dela.

Baina, hori garatzea erronka garrantzitsua da, aukera baten aitzinean gauden ia guztietan bezalaxe. Eta erronka diogu, zeren garapen osoa kontuan hartuta, hainbat borondate eta eskumen batu beharko baitira; izan ere, turismo mota hori ezartzeak hainbat arlo hartzen dituzten kontuak konpontzea eskatzen du, besteak beste, ingurumena, hirigintza, abeltzaintza, turismoa eta kirola. Aipatu gai hori, zaldi turismoaren garapenean hainbat eskumen koordinatzeari eta elkarrekin jarduteari buruzkoa, agerian uzten du turismoa bere osotasunean egiazki eta logikoki garatzeko koordinazio premia iraunkorra. Turismo garapen estrategikoak hainbat izaeratako erabakiak elkartzea eta koordinatzea eskatzen du, betiere, turismo lehian zuzenean eragite aldera.

Bistan denez, zaldi turismoa (zaldiz edo zaldiaren ingurukoa) oinarri hartuta, produktu berezitu ugari gara daitezke, batzuk besteak baino konplexuagoak, na-

zio eta nazioarteko bezero segmentu desberdinetara zuzenduta.

Zabala da zaldi turismoaren inguruko produktuen sorta, eta horien aukerak xedearen beraren ezaugarrien, oinarritzko osagaien eta osagarrien, eta sortze gaitasunaren beraren baitan egonen dira.

Bileren turismoa. Nafarroako Mendialdea, berez, Nafarroa bisitatzeo argudio paregabea da. Bertan, Erkidegoko turismo ikonorik garrantzitsuenetako batzuk daude, paisaiaren eta

“Turismo garapen estrategikoak hainbat izaeratako erabakiak elkartzea eta koordinatzea eskatzen du, betiere, turismo lehian zuzenean eragite aldera”.

landa turismoaren eredia osatzen duten herriez eta naturaz gain.

Bileren turismoa zabaltze bidean dagoen merkatua da, oro har hirietan egin izan dena. Horren barnean, landa eremuak bileren inguruneko irudi erakargarria jarri du, edo bileren osagarriak izan ziren jarduerak garatzeko eremua izan da. Hala ere, eremu berriak, berezitasunak eskaini ditzaketen eremuak ezagutzeko interesa sortu da; horretan aurki dezakete landa eremuek beren eremua.

Egoera interesgarria da, izan ere, bileren turismoaren eskaerak ase ditzaketen landa xarma logikoak aurki baititzakegu. Landa eremuetan kultur eta erabilera anitzeko azpiegiturak sortzen joan dira, eta horiek baliagarriak izan daitezke mintegiak, batzar txikiak eta bilerak egiteko.

Logikoki, bileren merkatuan txertatzearen aldeko interesa sektore horrek ekar ditzakeen onuretara heltzeko aukeran oinarritzen da. Ohiko turismoa baino errentagarriagoa den segmentua da. Urtarokotasunak ez du zerikusirik oportunitateko turismoarekin, eta xedeari kalitate irudia ematen dio.

Helburua izanik gaur gero egon badauden azpiegiturak (anitzetan gutxiegi erabiliak) errentagarri bihurtzea, tokian tokiko enpresentzat negozioa sortzea, eta landa turismoaren sektorea indartzea, proposamen erakargarri eta profesional berri bat sortzen dihardugu lanean. Jakina, kontua ez da hirietako egoitzekin lehian aritzea gauza bera eskainiz. Landa eremuek beren eskaintza garatu behar dute, berezkoak dituzten balioetan oinarritua.

Esther Celaya Carrascal
Directora Gerente. Cederna Garalur

